8:00tatik 14:00ak bitartean. Ordutegi horretatik kanpora ematen diren beste inzidentziak Foru Aldundinko Gizarte Zerbitzuen Urgentzizko zerbitzura informatuko dira (112).

- Garatzen dituen lan guztien kalitate teknikoaz arduratzea.

- Enpresa esleipendunak Udal zerbitzu teknikoek eskatzen dituzten txosten eta datu guztiak prestatu behar ditu zerbitzuei dagokienez, horiek, gainera, Udalak behar dituen formatuetan emango ditu.

- Enpresa esleipendunak erabiltzaile bakoitzaren egoerari buruzko xehetasun guztien berri izango du, udalarekin elkarlanean ahalik eta zerbitzu onena ematearren.
Era berean, ematen dituen zerbitzu guztien jarraipena egin beharko du, arazoak sortu ahala beharrezko moldaketak eginez.

- Erakunde mailegariak zerbitzuaren prestazioari bost eguneko epearen barruan, Udal Zerbitzu teknikoen aldetik altaren agindua jasotzen denetik aurrera, ekin beharko dio. Udal langile teknikoek premia dagoela adieraziz gero, zerbitzua aipatutako alta-agindua jaso ondoko 24 orduen barruan hasi beharko dute.

11. UDAL GIZARTE ZERBITZUEN ESKUMEN ETA BETEBEHARRAK

Udal gizarte zerbitzuek hurrengo eskumen eta betebehar hauek ditu Etxez Etxeko Laguntzaren programa garatzeko orduan:

- Udal mugartean dauden premiak aurketzea.
- Informazioa biltzea aintzat hartu ez duten eskariari buruz.
- Zerbitzuaren eskeintzaren inguruan egindako publizitatea ikuskatu eta kontrolatzea.
- Enpresarekin elkarlanean arituz, zerbitzua eskuratzeko eskabideetan planteatutako premien diagnostikoa eta balorazioa egitea.
- Zerbitzua eskuratzeko eskabideak ebaztea eta enpresari adieraztea zein zerbitzu eskeini behar dituzten.

la trabajadora social municipal, en horario de 8:00 a 14:00. Fuera de este horario se comunicará al Servicio Foral de Urgencias Sociales (112).

- Responsabilizarse de la calidad técnica de todas las tareas que desarrolla.

- La empresa contratista queda obligada a preparar cuantos informes y datos relacionados con los distintos servicios sean requeridos por los servicios técnicos municipales, en los formatos en los que el ayuntamiento requiera.

- La empresa contratista deberá conocer la situación específica de cada uno de las personas usuarias a fin de trabajar coordinadamente con el ayuntamiento para la asignación de la prestación más idónea.
Asimismo, deberá realizar un seguimiento actualizado de la situación de cada servicio que permita realizar ajustes según la evolución de cada persona usuaria.

- Iniciar la prestación del servicio en el plazo de cinco días a partir del recibo de la orden de alta por parte de los servicios técnicos municipales. En caso de urgencia declarada por el personal técnico municipal, el servicio habrá de iniciarse dentro de las 24 horas siguientes del recibo de dicha orden de alta.

11. FACULTADES Y OBLIGACIONES DE LOS SERVICIOS SOCIALES MUNICIPALES

Los servicios sociales municipales tienen las siguientes facultades y obligaciones en el desarrollo del programa de Ayuda Domiciliaria:

- Detectar las necesidades existentes en el término municipal.
- Recoger información sobre la demanda no atendida.
- Supervisar y controlar la publicidad por la prestación del mismo.
- Diagnosticar y valorar coordinadamente con la empresa las necesidades planteadas en las solicitudes de acceso al servicio.
- Resolver las solicitudes de acceso al servicio y comunicar a la empresa los servicios que tienen que prestar.

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

- Enpresarekin elkarlanean arituz, erabiltzaileari eman beharreko arreta maila, intentsitatea eta zerbitzuaren ordutegia diseinatu eta planifikatzea.
- Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa erabakitzea.
- Erabiltzaileen egoeraren jarraipena egitea eta zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea.
- Laguntzailearen aldaketa eskatzea, betiere Udal langile teknikoek beharrezko irizten badiote zerbitzuak ondo funtziona dezan.
- Adjudikazio-hartzaileari jakinaraztea etxez etxeko zerbitzuan aldaketak eragin ditzaketen udal erabaki guztiak.
- Beharrezko laguntza ematea kontratuan adostutako zerbitzua egoki betetzeko.
- Zerbitzuaren kudeaketaren gainbegiratzea.
- Erabiltzaileari zerbitzua ematea eta etetea eta enpresari jakinaraztea.
- Aldizkako bilerak eta jarraipena egiteko bestelako sistemak sustatzea, erakunde adjudikaziodunaren arduradunekin batera, eta horren helburua zerbitzuaren kudeaketa eta martxa orokorrari buruzko informazioa eta dokumentazioa biltzea eta jarduketak koordinatzea da.

- Diseñar y planificar conjuntamente con la empresa el nivel de atención a la persona usuaria, la intensidad y el horario de servicio.
- Determinar la aportación económica de la persona usuaria.
- Realizar el seguimiento de la situación de las personas usuarias y evaluar la calidad del servicio.
- Solicitar cambio de auxiliar siempre y cuando el personal técnico municipal lo considere necesario para el buen funcionamiento del servicio.
- Notificar a la entidad adjudicataria aquellos acuerdos municipales que se produzcan sobre el servicio de ayuda domiciliaria y puedan afectar a la prestación.
- Prestar la colaboración necesaria para el cumplimiento de la prestación objeto del contrato.
- Supervisar la gestión del servicio.
- Determinar el inicio y la finalización del servicio y comunicarlo a la empresa.
- Promover reuniones periódicas y otros sistemas de seguimiento con las personas responsables de la empresa contratista con el objeto de recabar información y documentación sobre la gestión y la marcha general del servicio y coordinar las actuaciones.

<u>Zerbitzuaren hobekuntzei buruzko orokortasunak:</u>

Udalak eskubidea izango du hobekuntzak zer erabiltzaileri eskainiko zaizkien erabakitzeko.

Eskaintzaren barruan hobekuntzak proposatzen badira, hobekuntza bakoitzarekiko hobekuntza bakoitzarekiko eskaintzen den kopuru ekonomiko guztia adieraziko da. Udalak gastatutakoaren jarraipena egingo du eta gauzatu gabeko kreditua erabili ahal izango du, helburua proposamenaren guztizkoa erabiltzea izanik.

<u>Cuestiones generales referidas a las mejoras del servicio:</u>

El Ayuntamiento se reserva el derecho a decidir a qué personas usuarias se les prestan las mejoras.

Si la oferta incluye mejoras del servicio, se especificará la cuantía económica total que ofertan para cada mejora, de manera que el ayuntamiento pueda realizar el seguimiento de la cuantía gastada y disponga del crédito no ejecutado para proponer la optimización de éste, con el fin de consumir el total de las propuestas de mejora.

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

12. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN INGURUKO EXEKUZIO BALDINTZAK

Baldintza-agiri honetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza moduan ezarri dira, eta kontratua gauzatzean egiaztatu beharko dira.

Errenteriako Udalak zerbitzu hau kontratatzeko baldintza teknikoen agirian, kontratuaren garapenean hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betetzeko irizpideak txertatu eta zereginak zein hizkuntzatan egingo diren jasoko du erabiltzaileek hizkuntza hauturako duten eskubidea bermatzeko. Hori horrela, zerbitzu honetako zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

a) Hizkuntza gaitasuna:

Kontratuaren indarraldi osoan enpresa adjudikazio-hartzaileak erabiltzaileekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan gauzatzeko gaitasuna izan behar dute.

Horretarako, enpresak hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betetzeko konpromiso-orria (I. eranskina) sinatuko du baldintza-agirian zehaztutako hizkuntza gaitasun maila duten langileak kontratatuko dituela adierazteko, une oro herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Lehiatzaileak lana egingo duten pertsonen zerrenda aurkeztuko du bere eskaintzan, horien guztien euskararen ezagutza adierazita.

Nolanahi ere, eskaintza egiteko unean lehiatzaileak ez badu lana garatuko duten pertsonen zerrenda zehazterik, adjudikazio-hartzaile suertatzen bada, adjudikazioa egin aurretik bermea jartzeko ematen zaion epean eskatutako euskara gaitasuna duten langileak izendatu beharko ditu. Adjudikazio-hartzaileak Errenteriako Udalari jakitera emango dio pertsona horien zerrenda.

Enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk hartu edo kideren bat aldatuko balitz, adjudikazio-hartzaileak aurretiaz emango dio administrazio kontratatzaileari horren berri. Langile horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna izan beharko dute. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontratataturiko langilerik

12. CONDICIONES DE EJECUCIÓN EN RELACIÓN A LAS LENGUAS OFICIALES

Las obligaciones impuestas en este pliego se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato.

El Ayuntamiento de Errenteria incluye en el pliego de condiciones técnicas para la contratación de este servicio los criterios para el cumplimiento del régimen de doble oficialidad lingüística en el desarrollo del contrato e incluirá el idioma en el que se desarrollarán las tareas para garantizar el derecho de las personas usuarias a la opción lingüística. Es por ello que las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

a) Competencia lingüística:

Durante todo el periodo contractual, las personas trabajadoras que la empresa adjudicataria designe para llevar a cabo su trabajo de relación directa con las personas usuarias del servicio deberán estar capacitadas para trabajar en las dos lenguas oficiales.

La empresa adjudicataria firmará una hoja de compromiso (anexo I) al objeto de declarar que contratará personal con la capacidad lingüística señalada en el pliego de condiciones técnicas, y garantizar de esa manera los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Las empresas presentarán en sus ofertas la relación de personas que emplearán e indicarán el conocimiento de euskera de las mismas.

Si en el momento de realizar la oferta las empresas no están en disposición de precisar la relación de personas que emplearán, tras la adjudicación del servicio aquella que resulte adjudicataria deberá designar el personal con la capacidad lingüística en el plazo concedido para depositar la fianza. Deberá, asimismo, presentar la relación de dichas personas al Ayuntamiento de Errenteria.

Una vez realizada la contratación, en el caso de que alguna nueva persona se incorpore al servicio o alguna de las personas trabajadoras sea sustituida, la empresa adjudicataria deberá comunicárselo a la administración contratante. Quien realice la sustitución o quien se incorpore deberá disponer de la capacidad lingüística solicitada. Lo mismo deberá hacer en caso de

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

ordezkatzeko balego ere.

Kontratu honetan zehazki:

Kontratuaren helburu den zerbitzua emateak herritarrekin zuzeneko harremanean lan egitea eskatzen du, eta bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskaintzeko, kontratuari atxikitutako langileek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako gaitasun mailen pareko gaitasunaren jabe izan behar dute (II. eranskina).

Kontratuaren zereginak jendaurrean gauzatuko dituzten pertsonek jarraian zehazten den hizkuntza gaitasun mailaren pareko maila izango dute:

- Zerbitzuaren arduraduna/koordinatzailea: C1 gaitasunaren mailaren pareko maila izango du
  - Ahozkoan: informazioa eman eta eskatzeko gaitasuna izan behar du, zuzentasun osoz eta jariotasunez, aurrez aurreko elkarrizketetan zein telefono bidezkoetan.
  - Idatzizkoan: gai izan behar du eskutitzak, laburpenak, espedienteen barruko agiriak, eta abar gramatika zuzentasun osoz idazteko.
- Etxez etxeko laguntzailea: B2 gaitasun mailaren pareko maila izango du:
  - Ahozkoan: gai izan behar dute informazioa eman eta eskatzeko, aurrez aurre zein telefonoz, eta elkarrizketak aisetasun nahikoarekin egiteko.
- Administrari laguntzailea: B2 gaitasun mailaren pareko maila izan behar du
  - Ahozkoan: gai izan behar du informazioa eman eta eskatzeko, aurrez aurre zein telefonoz, eta elkarrizketak aisetasun nahikoarekin egiteko.
  - Idatzizkoan: gai izan behar du agiri errazak idazteko (inprimakiak, ohar eta abisuak, ordutegiak...).

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntza

Azken urteotan euskararen erabilera areagotzeko egiten ari den ahalegina osatu nahi du Udalak zerbitzu honen bidez. Hori horrela, enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua emango du

sustitución del personal contratado por subrogación.

En este contrato, en concreto:

La prestación del servicio objeto del contrato exige una relación directa con la ciudadanía, por lo que al objeto de ofrecerlo con total garantía es necesario que en función de las tareas que desempeñen las personas trabajadoras durante la duración del contrato tengan una competencia lingüística similar a la recogida en el Marco Europeo de Referencia para las Lenguas (anexo II).

Las personas encargadas de la ejecución de las tareas del contrato en contacto con la ciudadanía o personal municipal tendrán un nivel de competencia lingüística similar al que se detalla a continuación:

- Responsable/coordinador del servicio: tendrá un nivel de competencia lingüística similar al C1
  - Competencia oral: tendrá capacidad lingüística para solicitar y ofrecer información, con total corrección y fluidez, tanto en las relaciones presenciales como telefónicas.
  - Competencia escrita: tendrá capacidad para redactar cartas, resúmenes y documentos extensos etc. con absoluta corrección gramatical.
- Auxiliar domiciliaria: tendrá un nivel de competencia lingüística similar al nivel B2:
  - Competencia oral: capacidad para facilitar y solicitar información, tanto presencial como telefónicamente, y realizar las entrevistas con suficiente facilidad.
- Auxiliar administrativa: tendrá un nivel de competencia lingüística similar al B2
  - Competencia oral: capacidad para facilitar y solicitar información, tanto presencial como telefónicamente, y realizar las entrevistas con suficiente facilidad.
  - Competencia escrita: capacidad para redactar documentos sencillos (impresos, notas y avisos, horarios,…).

b) Idioma que se utilizará en la prestación del servicio

Mediante la prestación de este servicio el Ayuntamiento de Errenteria quiere reforzar el esfuerzo que viene realizando durante los últimos años a favor de un mayor uso del euskera. Es por

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Errenteriako Udalak emango lukeen baldintza bertsuetan.

Kontratuaren xedea osatzen duten zereginak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, betiere zerbitzuaren berezko ezaugarriek beste hizkuntza batean edo batzuetan ere egitea eskatzen ez badute.

Herritarrak udalarekin harremanetan jartzen direnean harreman horiek zein hizkuntzatan izan nahi dituzten galdetzen die Udalak. Enpresa adjudikazio-hartzaileak herritarren hizkuntza hautua kontuan hartu eta zereginak betetzerakoan honela jardungo du:

Ahozko harremana:

- Zerbitzuaren erabiltzaileekin oro har: zerbitzuaren erabiltzaileekiko ahozko lehenengo arreta, aurrez aurre zein telefonoz, euskaraz izango da. Lehenengo harreman horretan hizkuntza aukeratzeko eskubidea dutela jakinaraziko die eta, hortik aurrerako jardunean haien hizkuntza hautuaren arabera jardungo dute. Erabiltzaileak edozein unetan erabili ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
- Haurrekin: euskararen erabilera areagotzeko helburuari dagokionez lehentasunezkotzat jotzen diren erabiltzaileak izanik, adin tarte honetako erabiltzaileekiko komunikazioa euskaraz izan dadin bultzatuko dute.
- Erabiltzaileen senitartekoekin harremanik izanez gero, ahozko lehenengo arretan, aurrez aurre zein telefonoz, euskaraz jardungo dute. Lehenengo harreman horretan harremanetarako hizkuntza aukeratzeko eskubidea dutela jakinaraziko die eta, hortik aurrerakoan, haien hautua errespetatuko dute.
- Udal ordezkariekin, berriz, honela jardungo du:
  - euskaraz, hala nahi duten udal ordezkari politikoekin
  - langileekin: euskaraz

▪ Idatzizko harremana: agiri eta komunikazio guztiak zein jardueren komunikaziorako erabiltzen dituen dibulgazio euskarriak eta komunikabideentzako oharrak euskaraz edo ele bitan sortu eta bideratuko ditu enpresak, ahozko harremanetarako adierazitako irizpide bertsuei jarraituz.

c) Administrazioari aurkeztu beharreko dokumentazioa

ello que la empresa adjudicataria realizará el servicio en unas condiciones similares a las que de hecho se exigen al Ayuntamiento de Errenteria.

Las tareas que constituyen objeto del contrato se realizarán en ambas lenguas oficiales, salvo que de las características intrínsecas de la prestación se derive que exigen además su realización en otra u otras lenguas.

En sus relaciones con la ciudadanía el Ayuntamiento consulta su opción lingüística. La empresa adjudicataria del servicio respetará dicha opción lingüística y en el desempeño de sus tareas procederá de la siguiente manera:

Relación oral:

- Con las personas usuarias del servicio: la atención verbal inicial de la empresa adjudicataria a las personas usuarias del servicio, tanto presencial como telefónica, será en euskera. En ese primer contacto se les informará de su derecho a elegir la lengua de relación y a partir de ese momento actuarán en función de su opción lingüística. La persona usuaria podrá ejercitar en cualquier momento su derecho a la elección de lengua.
- Con niños/niñas: dado que son un colectivo considerado prioritario en el objetivo de incrementar el uso del euskera, promoverán que la comunicación con este grupo de edad se desarrolle en euskera.

- En caso de contacto con familiares de las personas usuarias, la primera atención oral, tanto presencial como telefónica, será en euskera. En ese primer contacto se les informará de su derecho a elegir la lengua de relación, y, a partir de ese momento, actuarán en función de su opción lingüística.
- Con las y los representantes municipales:
  - en euskera, con las y los representantes políticos que así lo deseen
  - personal municipal: en euskera

Comunicación escrita: todas las notificaciones y comunicaciones así como los soportes divulgativos y las notas a los medios de comunicación que utilice para la comunicación de las actividades se realizarán en euskera o en euskera y castellano, siguiendo los mismos criterios señalados para las comunicaciones verbales.

c) Presentación de documentos a la Administración

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Kontratuan zehar eratu eta Udalari entregatzen zaizkion agiriak (azterlan, txosten, proiektu, aurrekontu, faktura eta bestelako agiriak) bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

d) Hizkuntza baldintzen jarraipena

Udalak enpresa adjudikazio-hartzaileak ematen duen zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratua gauzatzen den epe osoan, indarrean dagoen araudia bete eta herritarren eskubideak bermatzeko.

Gizarte Zerbitzuak azpisailak harremanetan jarriko ditu enpresa adjudikazio-hartzailea eta Udal Hizkuntza Politika saila, jendaurrean arituko diren langileei euskara gaitasuna egiaztatzeko elkarrizketa egin diezaien, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskain dezaketen egiaztatzeko asmoz. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako titulazioren bat aurkeztuz gero, berriz, ez dute elkarrizketa egin beharrik izango. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Elkarrizketa eguna eta ordua Udal Hizkuntza Politikak adostuko du zerbitzua jendaurrean emango duten langileekin, eta gehienez ere zerbitzua ematen hasi eta hamabost egunera egingo da.

Udal Hizkuntza Politika sailak elkarrizketa egin duten langile guztien euskara gaitasunaren inguruko txostena emango du. Zerbitzua jendaurrean ematen jarraitzeko ezinbestekoa da Udal Hizkuntz a Politikaren aldeko txostena eskuratzea. Elkarrizketan jendaurreko funtzioak bi hizkuntzetan betetzeko beharrezko gaitasuna egiaztatu ezean, langilea ordezteko eskatuko zaio enpresari.

Zerbitzua ematen den bitartean, eta hizkuntzari dagokionez zerbitzuari egindako jarraipenean oinarrituta, Udalak uste badu baldintza teknikoen agirietan jarritako hizkuntza betebeharrak ez direla

Los documentos producto de la prestación del servicio que se entreguen al Ayuntamiento (estudios, informes, proyectos, presupuestos, facturas u otros documentos) se realizarán en los dos idiomas oficiales.

d) Seguimiento de los criterios lingüísticos

El Ayuntamiento realizará el seguimiento del servicio ofrecido por la empresa adjudicataria durante toda la fase de ejecución del contrato, con el fin de cumplir la legislación vigente y garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

La subárea de Servicios Sociales pondrá en contacto a la empresa adjudicataria con el departamento de Política Lingüística Municipal al objeto de que realice una entrevista a las personas designadas para la prestación del servicio de atención directa al público, en la que se verifique que tienen la capacidad lingüística necesaria para trabajar con total garantía en los dos idiomas oficiales. Quienes presenten alguna de las titulaciones recogidas en el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas no tendrán que realizar la entrevista. Asimismo, en base al Decreto 47/2012 de 3 de abril, se reconocerán los estudios oficiales realizados en euskera y serán considerados los casos de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

El día y hora de la entrevista serán consensuadas entre el departamento de Política Lingüística Municipal y las y los profesionales, y se realizará como máximo dentro del plazo de quince días desde el comienzo de la prestación del servicio.

El departamento de Política Lingüística Municipal emitirá informe sobre cada persona que realice la entrevista. Para prestar servicio de cara a la ciudadanía es imprescindible el informe favorable del departamento de Política Lingüística Municipal, por lo que se exigirá a la empresa que sustituya a las personas que en la entrevista no acrediten la capacidad lingüística necesaria para desempeñar sus funciones de atención al público en los dos idiomas oficiales.

Si durante la prestación del servicio el Ayuntamiento considera que no se han cumplido las obligaciones lingüísticas establecidas en el pliego de condiciones técnicas, pondrá en marcha el procedimiento derivado de las infracciones

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

bete, arau-hausteen ondoriozko prozedura jarriko du martxan (kontratua amaitu edo penalizazioak ezarri, kasuan-kasuan).

13. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Enpresa esleipendunak derrigorrez bete beharko du indarrean dagoen lan arloko, araudia, Gizarte Segurantzarena eta Laneko Osasunarenena, betiere kontratuaren xede diren lanetan.

Era berean, Udalari aurkeztu beharko dio lan arriskuen prebentziorako dokumentazioa, baldintza-agiri hauekin III.eranskin gisa batera datorrena.
Udaletxeko Prebentzio teknikaria enpresak bidalitako dokumentazioa gainbegiratuko du.Dokumentazioa zerbitzua hasi baino 10 egun lehenago gutxienez aurkeztu beharko du.

cometidas (finalización del contrato o imposición de penalidades, según corresponda).

13. PREVENCION DE RIESGOS LABORALES

La empresa adjudicataria está obligada al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de Seguridad Social y Salud en el Trabajo, respecto de los trabajos objeto del contrato.

Así mismo deberá presentar al Ayuntamiento la documentación de prevención de riesgos laborales que se acompaña a estos pliegos como anexo III.

El control de la documentacion se ejecutará por la técnica municipal de prevención de riesgos laborales y deberá aportarse con una antelación de al menos 10 días a la fecha prevista de la efectiva prestación del servicio.

Errenterian, sinaduraren egunean

Gizarte Zerbitzuetako programa koordinatzailea / Coordinador de programas de Servicios Sociales

Fdo./Stua: Bittor Fernandez

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

I. ERANSKINA / ANEXO I

HIZKUNTZA OFIZIALTASUN BIKOITZAREN ARAUBIDEA BETETZEKO KONPROMISOA	COMPROMISO DE CUMPLIMIENTO DEL RÉGIMEN DE OFICIALIDAD DE LOS DOS IDIOMAS

Jaun-andrea Don/Doña		**NAN** DNI	
Helbidea Dirección			
Noren ordez En representación de		**IFK** IFK	
Egoitza soziala Domicilio social			

ADIERAZTEN DUT

Hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubideari jarraituz, eta herritarren eskubideak bermatu daitezen, kontratua gauzatzerakoan, ondorengo neurriak hartuko ditudala:

1.- Udal araudia beteko dut, Udal Hizkuntza Politika Departamentuaren txostenean jasotakoaren arabera.

2.- Hori horrela, Kontratuaren zereginak gauzatzeko beharrezko hizkuntza-gaitasuna duen langile kopurua atxikiko dut, uneoro zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eskaintzea bermatzeko.

DECLARO

Que en cumplimiento del régimen de oficialidad de los dos idiomas oficiales, y con el fin de garantizar los derechos de la ciudadanía, en la ejecución del contrato adoptaré las siguientes medidas:

1.- Daré cumplimiento a la normativa municipal, conforme a lo señalado en el informe del Departamento de Política Lingüística Municipal.

2.- A esos efectos, adscribiré para la ejecución del contrato, el personal con capacidad lingüística necesaria para la ejecución del las tareas del contrato, de forma que se garantice en todo momento la prestación del servicio en las dos lenguas oficiales.

Errenterian, ... (e/a)n


Stua./Fdo.:

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

II . ERANSKINA / ANEXO II:

HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOA / MARCO EUROPEO DE REFERENCIA PARA LAS LENGUAS



ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

III . ERANSKINA / ANEXO III:

ERRENTERIAKO UDALARI BIDALI BEHAR ZAION LAN ARRISKUEN PREBENTZIO ARLOKO DOKUMENTAZIOA:

LANGILEEN DOKUMENTAZIOA

1.- Lan egingo duen pertsonalaren zerrenda bere NAN-arekin.
2.- Lan arriskuen ebaluazioa eta ekintza zuzentzaileen planifikazio lanpostu bakoitzak betea.

3.- Langileei emandako arriskuen eta prebentzio neurrien informazioa.

4.- Langileei emandako formazioa.

5.- Norbera Babesteko Ekipamenduaren ematea (beharrezkoak direnak eta homologatuak).

6.- Gai direla adierazten duten agiri medikoak. Prebentzio zerbitzu batean egin eta enpresa medikuak sinatuta osasun zaintzaren barruan.

7.- Lan ekipo erabiltzen badute, lan ekipoen zerrenda eta pertsonalaren erlazioa (eskuzko erremintak, erreminta elektrikoak eta lan ekipoak). CE marka izango dute edo OCA bitartez ED 1215/97-ra egokituko dira.

8.- Bere kasuan, baliabide prebentiboa (izendapena eta formazio zihurtagiria bidali). Ez bada behar, espresuki adierazi behar da bidaltzen den dokumentazioan.

ENPRESAREN DOKUMENTAZIOA

1.- Lan arriskuen prebentziorako esleipendun enpresaren pertsona kontaktua zehaztu.

2.- Organizazio prebentiboaren modalitatea azken ordainketarekin.
3.- Mutuarekin egindako elkartze-hitzarmenaren poliza, edo Gizarte Segurantzarekin bere kasuan. Azken ordainketa gehitu.
4.- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza eta ordainketaren azken erreziboa.
5.- Horrela badio hitzarmen kolektiboak, istripu asegurua, azken ordainketaren justifikazioarekin. Ez bada beharrezkoa, espresuki adierazi behar da bidaltzen den dokument

6.- Udalean lan egingo duten guztien TC1 eta TC2.

DOCUMENTACIÓN DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES A REMITIR AL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA:

DOCUMENTACION DE TRABAJADORES

1.- Relación de personal con número de DNI .

2.- Evaluación de riesgos laborales y planificación de acciones correctoras cumplimentada por cada puesto de trabajo.

3.- Información de riesgos y medidas preventivas entregadas a los trabajadores.

4.- Formación impartida a los trabajadores.

5.- Entrega de equipos de protección individual (los necesarios y homologados).

6.- Certificados médicos de aptitud. Realizados en servicio de prevención y firmado por médico de empresa dentro de la vigilancia de la salud.

7.- En caso de utilización de equipos de trabajo, se adjuntara ,relación de Equipos de Trabajo y personal que hara uso.de ellos.(herramientas manuales, herramientas eléctricas y equipos de trabajo). Serán con marcado CE o adecuados al RD 1215/97 mediante OCA.

8.- En su caso, designación de recurso preventivo (enviar nombramiento y certificado de formación). Si no hace falta, hay que señalarlo expresamente en la documentación enviada.

DOCUMENTACION DE EMPRESA

1.- Especificar la persona de contacto en la empresa adjudicataria para prevención de riesgos laborales.
2.- Modalidad de organización preventiva con último pago.
3.- Póliza asociación a Mutua, o con la Seguridad Social, en su caso. Adjuntar último pago.
4.- Seguro de responsabilidad civil con copia del último recibo de pago.
5.- Si procede por convenio colectivo, seguro de accidentes con justificante del último pago. Si no es obligatorio, se indicará expresamente en la documentación remitida.

6.- TC1 y TC2 de todo el personal que trabaje en

ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Kontratazio berriekiko TA2. Autonomoen kasuan, Gizarte Segurantzan ordainketak eguneratuak dituenaren ziurtagiria. Aldizka informazio hori bidaltzea eskatuko da.

7.- Ogasun eta Gizarte Segurantza ordainketetan eguneratuak egotea ziurtatu (salbu esleipen prozedura baten ondorioz esleipena jaso izanez gero, kasu horietan aurretik aurkeztu dutelako dokumentazioa).

OHARRAK:
- Dokumentazioa, finkatutako epeetan bidaliko da.

- Azpikontratazio egiten denean edo langileen aldaketa dagoenean, haien dokumentazioa bidali behar da.

- Errenteriako Udalean itundutako zerbitzuak betetzeko kontratistak egiten dituen azpikontratazioen berri emateaz gain, azpikontratazioak dauzkan mugekin eta araudiarekin bete beharko du (30/2007 Legea, sektore publikoko kontratuak, 32/2006 Legea, eraikuntzako sektorean azpikontratazioa arautzen duena, 1109/2007 ED, 32/06 Legea garatzen duena, langile estatutuaren 42, 43 eta 81. artikuluak berregiten dituenak…etab.).

- Esleipenduna izan den enpresaren langileek kontratuaren exekuzioan izandako istripuak eta altak eta bajak komunikatuko dituzte Errenteriako Udalari.

- Kontratua indarrean dagoen bitartean egoki deritzon prebentzio arloko dokumentazioa eskatzeko eskubidea gordeko du Errenteriako Udalak.

- Esleipenduna izan den enpresak bere funtzioen garapenean bete beharreko arau juridiko eta tekniko guztiak beteko ditu.

- Ez betetzeak lanen geldiera ekar dezakete.

el Ayuntamiento. Personal reciente contratación TA2. En el caso de autónomos, certificado de estar al corriente en pagos a la Seguridad Social. Periódicamente se solicitará se remita ésta información.

7.- Acreditar estar al día en el pago a Hacienda y la Seguridad Social (salvo en los casos en los que sea adjudicatario por medio de procesos de adjudicación en cuyo caso ya se habrán presentado dichos documentos).

NOTAS:
- La documentación será remitida dentro de los plazos indicados .

- Si se subcontrata o se sustituye al personal se deberá presentar documentación complementaria.

- El contratista está obligado a comunicar las subcontrataciones que realice para desempeñar servicios concertados con el Ayuntamiento de Errenteria, además de cumplir con las limitaciones y normativa al respecto (Ley 30/2007 de 30 de octubre de contratos del sector público, Ley 32/2006 reguladora de la subcontratación en el sector de la construcción, RD 1109/2007 de 24 de agosto por el que se desarrolla la Ley 32/06, Ley 43/2009 de 29 de diciembre que reforma la los artículos 42,43 y 81 del ET…etc).
- Se comunicarán al Ayuntamiento las altas y bajas y los accidentes que personal de la empresa adjudicataria durante la ejecución del contrato.

- El Ayuntamiento de Errenteria se reserva el derecho a solicitar la documentación que en materia preventiva estime oportuno durante la vigencia del contrato.

- La empresa adjudicataria cumplirá con las normas jurídicas y técnicas que le sean de aplicación en el ejercicio de sus funciones.

- Los incumplimientos pueden dar lugar a la paralización de trabajo.

C.I.F. P-2007200-E Santa Clara 18 bajo. • Tfnoa: 943 449604 - Fax 943 449654 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

EKS | CSV: **ESKUe9a3e5c6-0173-4216-940a-e0d15cc91d20**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025OZER0016-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA/DOCUMENTO CONDICIONES TÉCNI(

Sinatzailea 1 / Firmante 1: BITTOR FERNANDEZ AMONDARAIN - 72523787A
Data / Fecha: 2025/05/12 12:20:06